



EBAZPENA, 2021eko ekainaren 24koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2021eko ekitaldian ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzak emateko dena.

Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 14ko Aginduaren bidez (2020ko urriaren 26ko EHAA, 210. zk.), 2021eko ekitaldian ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzen deialdia egin zen.

Hautapen Batzordeak aginduaren 11. eta 12. artikuluek ezarritakoaren arabera esleipen-proposamena egin zuen. Proposamen hori ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ebazpen honen 1. eranskinean ageri diren erakundeei bertan zehazten diren dirulaguntzak ematea ekipamendu zientifikoa eskuratzeko.

Bigarrena.- Ebazpen honen 2. eranskinean ageri diren eskabideak ezestea, aurrekontu-kreditua agortzeagatik (13.1 art).

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 24a.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Ikerketa eta Unibertsitate sailburuordea